

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Organismo Autonomoak

GIZARTE ONGIZATERAKO FORU ERAKUNDEA

317/2022 prozedura laburtuan epatzeko iragarkia

Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen Legearen 49.1 artikuluan xedatutakoa betez, errekurtsua jarri eta espedientea Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietako 3. Epaitegira bidali dela jakinarazten da; 317/2022 prozedura laburtua, Soraya Herreros Martínez de Zabarte eskatuta bideratua, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko zuzendari kudeatzailearen 2022ko uztailaren 20ko ebazpenaren aurka, zeinaren bidez bere borondatezko erretiro pizgarri-duna hartzeko eskaera ezesten du.

ALHAOn dagokion iragarkia argitaratuz, interesa duten guztiak epatzen dira, eta bederatzi eguneko epea izango dute autoetan agertu eta pertsonatzeko, iragarki hori argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko urtarrilaren 17a

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen zuzendari-kudeatzailea
JOSÉ FRANCISCO ANTÓN IDRÓQUILIS